




Txikizkako sektoreko salmentak %1,7 gehitu dira

Txikizkako merkataritza guztira

Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

2023ko lehen hiruhilekoan, txikizkako merkataritzan eginiko salmentak %1,7 gehitu ziren Euskadin aurreko urtearen aldean. Horrela, 2022ko aurrerapena berresten da, 2010etik lehen hiruhileko batean erregistrorik onena ezarriz. Hazkundeak positiboak izan ziren elikaduran (%0,2) zein gainerako produktuetan (%2,6).

Erregaien salmentak %5,1 egin zuen gora

Erregaien txikizkako merkataritza

Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

Aurreko informazioaren osagarri, gasolindegietako automobilgintzarako erregaien salmentak %5,1 handitu ziren urte batetik bestera. Hala, atal honetako indizeak azken urteetako jaitsiera profila alde batera utzi du, baina joan den hamarkadako lehen urteetako mailetatik urrun geratu da.



Euskadin 902 enpresa sortu ziren martxora arte

Euskadin sortutako enpresak
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: INE.

Aurtengo lehen hiruhilekoan, 902 enpresa eratu ziren Euskadin eta 49 milioi euroko kapitala erabili zen horretarako. Aurreko urteko datuekin alderatuta, sortutako enpresen kopurua %1,3 murriztu da, nahiz eta eratzeko orduan ordaindutako kapitala %12,9 handiagoa izan den.

Euskadiko KPIa %4,2an kokatu zen apirilean

Euskadiko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Apirilean inflazioa bederatzi hamarren hazi zen aurreko hilaren aldean eta %4,2ko balioan kokatu zen. Igoera hori batez ere produktu energetikoen garestitzeak baldintzatu zuen, baina azpiko inflazioa %6,8ra jaitsi zen, elikagaien prezioen bilakaera onari esker.